

II. ERREPUBLIKA ETA GERRA ZIBILA

Kronika Donostiatik

II REPÚBLICA Y GUERRA CIVIL

Crónica donostiarra

UNAI BELAUSTEGI

UNAI BELAUSTEGI

II. Errepublika eta Gerra Zibila

Kronika Donostiatik

II República y Guerra Civil

Crónica donostiarra



Aurkezpena / Presentación

Miren Azkarate

DSS2016EU, Kultura, Euskara eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkaria
Concejala delegada de DSS2016EU, Cultura, Euskera y Educación.

Gertakizun historikoak gure memorian bizirik irautea nahi badugu, aurretik informazioa jaso, baldintza egokietan gorde eta zabalkundea egitera behartuak gaude. Donostiako Udal Liburutegia 1874 urtean sortu zen eta ordudanik liburu eta argitalpen bilduma zabala osatu du. Horien artean azpimarragarria da Donostian argitaratu ziren egunkarien bilduma. XIX. mendearen bukaeratik gaur arte egunkarien zerrenda luzea kaleratu da. Horietatik zaharrenak, 1936 arte argitaratu zirenak digitalizatuak daude eta denon eskura Udal Liburutegien Sarearen webgunean. Hain zuzen, bilduma horretako edukiekin argitaratu da *II. Errepublika eta Gerra Zibila. Kronika Donostiatik* liburua. Unai Belaustegiren testuek Antton Olariagaren irudiekin batera urte haietako kronika aberasten dute.

Si queremos que los hechos históricos se mantengan vivos en nuestra memoria, estamos obligados previamente a recoger la información, conservarla en las debidas condiciones y difundirla. La Biblioteca Municipal de San Sebastián se creó en 1874 y desde entonces ha creado una extensa colección de publicaciones. Destaca entre todas la colección de diarios publicados en San Sebastián. Desde finales del siglo XIX hasta la actualidad se ha publicado una larga lista de diarios y los títulos más antiguos de esa relación, los publicados hasta 1936 están digitalizados y de libre acceso en la web de la Red de Bibliotecas Municipales. Precisamente con los títulos de esa colección se ha publicado el libro *II República y Guerra Civil. Crónica donostiarra*. Los textos de Unai Belaustegi junto con las ilustraciones de Antton Olariaga contribuyen a enriquecer la crónica de aquellos años.

Aitzinsolasa / Prólogo

UNAI BELAUSTEGI

Espainiar II. Errepublika aldarrikatu zela eta tropa frankistak Donostian sartu zirela 85 eta 80 urte beteko direla aprobetxatuz, historia modu interesgarriago batean transmititu daitekeela erakusteko helburuak eraman gaitu liburua idaztera. Historia Publikoaren filosofia eta metodologia aplikatuz, irakurlea lehen eskuko iturriekin zuzenean harremanetan jarri nahi dugu. 1931 eta 1936 bitartean Donostian egunero kaleratu ziren egunkarien bitartez, orduko albisteak zuzenean irakurri eta konparatu ahal izango dira. *El Día*, euskal egunkari abertzale eta katolikoa; *El Pueblo Vasco*, Rafael Picavea enpresagizonak sortua, liberal kontserbadorea hasieran eta euskal nazionalismoarekiko hurbila gero; *La Constancia*, egunkari katoliko eta integrista, Errepublikaren aurkakoa; *La Voz de Guipúzcoa*, laikoa eta bere izenburuak zioen bezala, *Diario Republicano*; *El Diario Vasco*, katoliko kontserbadorea eta monarkikoa, euskal nazionalismora hurbiltzen joan zena; eta azkena, Gerra Zibilak eztanda egin zuenean sortu zuten gerra egunkari errepublikanoa: *Frente Popular*.

Coincidiendo con los 85 y 80 aniversarios de la proclamación de la II República española y la entrada de las tropas franquistas en Donostia, queríamos demostrar que es posible transmitir la historia de una manera mucho más interesante. Siguiendo la filosofía de la Historia Pública y aplicando su metodología, hemos pretendido poner al lector en contacto directo con las fuentes primarias de la época. Dichas fuentes son los diarios que se publicaron en Donostia entre 1931 y 1936. *El Día*, católico y nacionalista vasco; *El Pueblo Vasco*, fundado por el empresario Rafael Picavea, liberal conservador en sus inicios y cada vez más cercano al nacionalismo vasco; *La Constancia*, católico e integrista, contrario a la República; *La Voz de Guipúzcoa*, laico y como su cabecera indicaba, *Diario Republicano*; *El Diario Vasco,* católico conservador y monárquico que fue acercándose al nacionalismo vasco; y por último, el diario de guerra que se publicó después del alzamiento franquista: *Frente Popular*.

Testua / Texto

UNAI BELAUSTEGI

Ilustrazioak / Ilustraciones

ANTTON OLARIAGA

Diseinua eta maketazioa / Diseño y maquetación

ANTTON OLARIAGA

Donostia-San Sebastián, 2016

Argitaratzailea / Editor

E.P.E. Donostia Kultura. Liburutegi Zerbitzua

Konstituzio plaza, 1

20003 Donostia-San Sebastián

www.donostiakultura.com

ISBN 978-84-608-6707-7

DL SS-711-2016

Inprimaketa / Impresión


Michelena artes gráficas S.L. - Astigarraga (Gipuzkoa)


1931
1933

Donostiako Hitzarmenak Errepublika ekarriko du

1930eko abuztuaren 17an, igandea, uda garaia zela aprobetxatuta, Zirkulu Errepublikanoan Donostiako Hitzarmena antolatu zen. Aldarrikatzea espero zuten II. Errepublikako lehendabiziko gobernua adosteko bilkura izan zen. Bertan bildu ziren monarkiaren aurka zeuden garaiko protagonista nagusienak: Alejandro Lerroux, Manuel Azaña, Marcelino Domingo, Alvaro de Albornoz, Angel Galarza, Niceto Alcalá Zamora, Miguel Maura, Manuel Carrasco Formiguera, Matías Mallol Bosch, Jaime Aiguader, Santiago Casares Quiroga, Felipe Sánchez Román eta Eduardo Ortega y Gasset. Indalecio Prieto sozialista gonbidatu moduan joan zen. Bilera Fernando Sasiainek zuzendu zuen, Zirkulu Errepublikanoko presidentea eta Donostiako alkatea izango zenak.

Donostiako Hitzarmena deitzen zaion arren, ez zen bilkuran dokumentu ofizialik edo hitzarmen zehatzik adostu, eta Prieto bera izan zen garaiko komunikabideei momentuan eskuz idatzitako prentsa ohar xume bat helarazi ziena: "*se llegó a un plan de acción perfectamente concertado y fue tan completa la unanimidad que la finalidad con que fue convocada la reunión quedo desbordada*". *El Día* egunkariak adierazi zuen moduan, euskal abertzaleentzat, Kataluniako errepublikanoen proposamen autonomistak onartzea izan zen hitzarmenaren punturik garrantzitsuena: "*Reconocimiento de la personalidad catalana*". *El Pueblo Vasco* egunkariak, federalismoari erreparatu zion[1].



LA REUNION DEL DOMINGO

Se establece la unión de las fuerzas republicanas

Convienen en la fórmula federal, precisada por las Cortes Constituyentes; desdeñan las cuestiones electorales; y deciden requerir a las organizaciones obreras

El 17 de agosto de 1930, aprovechando el período estival, se celebró el conocido Pacto de San Sebastián. Se dice que en ella se acordó el primer gobierno de la República que pretendían proclamar, pero lo cierto es que nunca se publicó ningún documento oficial del pacto. Fue el invitado socialista Indalecio Prieto quién de su puño y letra escribió una nota de prensa para los diarios allí reunidos.

1 *El Pueblo Vasco*, 1930-08-19, 3.

Erregealdiko azken hauteskundeak ospatu dira

1931ko apirilaren 12an, udal hauteskundeak ospatu ziren Espainia osoan. Hauteskundeotan, errepublikanoak eta sozialistak batera aurkeztu ziren Alfontso XIII.aren erregealdiaren alternatiba izango zen Errepublikaren alde egiteko. Gau hartan bertan jada, emaitzak kaleratzen hasi ziren eta Estatuko hiri nagusienetan monarkiaren aurkakoek irabazi zutela jakin zen. Gipuzkoako hiri nagusienetan ere sozialista eta errepublikanoek osatutako konjuntzioa atera zen garaile. Donostian adibidez, 39 zinegotzitatik 25 zinegotzi lortu zituzten aldaketaren aldekoek. Estatu mailan zein Gipuzkoako hiriotan beraz, irabazleen poza erabatekoa izan zen egun hartan eta II. Errepublikaren etorrera aurreikusi zuten emaitzak kaleratu bezain pronto. Egunkarien interpretazioak aldiz, oso ezberdinak izan ziren[2]:



La Voz de Guipúzcoa

Martes 14 de Abril de 1931 — Diario Republicano — San Sebastián Año XXIII Núm. 11.511

San Sebastián, por la República

Triunfo brillantísimo de la Conjunción Republicano-Socialista. - Las izquierdas, con un orden completo, arrollan materialmente a todos los conglomerados derechistas. - Enorme entusiasmo en la ciudad. - Datos de la provincia. - En las principales localidades guipuzcoanas triunfa la República



EL PUEBLO VASCO

SAN SEBASTIAN Martes 14 de Abril de 1931.

Año XXIX.—Núm. 9.603. DIARIO INDEPENDIENTE Fundador: Rafael Picavea

NUEVE AÑOS DESPUES

LAS ELECCIONES MUNICIPALES HAN SIDO DE TENDENCIA ANTIDINASTICA EN TODA ESPAÑA

Los constitucionalistas dan por hecho el plebiscito, Alcalá Zamora toma en nombre de la voluntad nacional y se retira el Comité revolucionario.

HOY SE ESPERA LA CRISIS TOTAL, CON POSIBLE ABDICACION DEL MONARCA

El Pueblo Vasco egunkariak adibidez, "erabateko krisia" sortuko zela adierazi zuen bere titularrean[3].

2 *La Voz de Guipúzcoa*, 1931-04-14, 1; *El Pueblo Vasco*, 1931-04-14, 1.

3 *La Constancia*, 1931-04-16, 1; *La Voz de Guipúzcoa*, 1931-04-14, 4.

LA NUEVA REPUBLICA

ES MUY SENSIBLE QUE COMIENCE CON LAS TRISTES EFEMERIDES DE SU PREDECESORA

La Constancia-k, apirilaren 16an, Errepublika aldarrikatu eta hurrengo eguneko gertakari garrantzitsuena bezala, azalean, Estatuko hainbat lekutan komentuak erre izana azpimarratu zuen. Errepublikaren "prestigioa" populua kontrolatzearen baitan zegoela adierazi zuen.

En las elecciones municipales celebradas el 12 de abril de 1931, la Conjunción Republicano-Socialista salió victoriosa en las principales ciudades de España. En Gipuzkoa fueron mayoría en Donostia, Eibar e Irún. Las noticias publicadas al día siguiente por los diarios donostiarras muestran diferentes estados de ánimo, desde la "crisis" señalada por *El Pueblo Vasco* hasta la importancia que le quiso dar *La Constancia* a la quema de conventos.

Concejales que integrarán el nuevo Ayuntamiento donostiarra

Conjunción Republicano-socialista

1	Don Fernando Saslaia Beau	2.453 votos
2	Don Jesús Batanero Labaio	2.444 „
3	Don Castor Torre Romero	2.440 „
4	Don Remigio Pedro Cendoya	2.428 „
5	Don Celerino Martiarena Recondo	2.405 „
6	Don Pio Chaos Macazaga	2.403 „
7	Don Ramón Noya Peromingo	2.356 „
8	Don Luis Iglesias Ansuño	2.352 „
9	Don Luis Gómez Arias	2.319 „
10	Don Carlos Sotos Guridi	1.202 „
11	Don Sergio Echeverría Zubeldia	1.176 „
12	Don Esteban Pasamar Cellmendiz	1.145 „
13	Don José Arpiazu Lecue	1.123 „
14	Don Manuel Trecu Ugarte	1.008 „
15	Don Antonio Zaldúa Zubeldia	999 „
16	Don Guillermo Torrijos Goyarzu	985 „
17	Don José María Paternina Alonso	767 „
18	Don Fermín Ortega Hernández	753 „
19	Don Miguel Parra Iturria	746 „
20	Don Pedro Filliol Alzpúrua	744 „
21	Don Celestino de la Cruz Jareño	476 „
22	Don Luis Amuta Zubia	469 „
23	Don Rufino Sanmartín Larraz	456 „
24	Don José Antonio Vidaurre Samaniego	449 „
25	Don Pedro Andonaegui Uribarren	349 „

Nacionalistas

1	Don Rafael Arcelus Beguiristain	772 „
2	Don Silverio Zaldúa Mendia	659 „
3	Don Mariano Lasarte Martiarena	646 „
4	Don José Imaz Arrieta	217 „
5	Don Feliciano Lubea San Manuel	210 „
6	Don José Olaizola Gabarain	175 „

Monárquico-regionalista

1	Don Vicente Olasagasti	821 „
2	Don Pablo Ostolaza	769 „
3	Don José Luis Loudaiz	765 „
4	Don Isidro Mendiola Querejeta	539 „
5	Don José Luis Abrisqueta Delgado	518 „
6	Don Fernando Zubiri Anaistegui	516 „
7	Don Ignacio Mendizábal Lujambio	490 „
8	Don Pedro Soraluce Goñi	230 „

Estos datos han sido obtenidos de los boletines enviados por la Junta del Censo al Gobierno civil. En anteriores detalles de candidatos elegidos figuraba don Victoriano Ibarbia con 731 votos. Según los datos oficiales, corresponde la elección al señor Olasagasti, por mayor número de votos, como puede apreciarse.

Bandera errepublikanoa eskegi dute[4]



UN DIA HISTÓRICO

DESPUES DE QUINCE SIGLOS DE MONARQUIA, ONDEÓ LA BANDERA REPUBLICANA

EL COMITÉ REVOLUCIONARIO DE DICIEMBRE SE CONSTITUYE EN GOBIERNO PROVISIONAL


Don Alfonso salió en auto para Cartagena; y esta madrugada había embarcado para Inglaterra. La familia real pasará hoy probablemente por San Sebastián, con rumbo a Londres.

Toribio Echevarria Eibarko sozialista ospetsuak zioenez, apirilaren 14ko goizeko ordu txikietan kamioilariek, Bilbora eta Madrilera zeramaten arrainarekin batera, Donostiako albiste freskoak ekarri zituzten. Errepublika aldarrikatzera omen zihoazen Gipuzkoako hiriburuan. Eibartarrek, albiste haiek sortutako pozak eramanda edo, goizeko zazpietan udaletxeko plazan bildu eta hauteskundeak irabazi zituzten sozialista eta errepublikanoak babestu zituzten. Alejandro Telleria sozialistak, udaletxean zegoen Alfonso XIII.aren argazkia leihotik behera bota zuen, Errepublika aldarrikatuz.

Egunak argitu zuenean, Bilbotik eta Donostiatik zetozen trenek ez zuten Errepublikaren aldarrikapenari buruz ezer esan. *"Un jarro de agua fría"* bezala sartu omen zitzaien albisteen falta. Momentu haietan Eibar zen Espainiako herri errepublikano bakarra.

Ordu batzuetako itxaronaldiaren ostean Bartzelonan Errepublika aldarrikatu zutela jakin zuten eta horrek, egundoko jaia piztu zuen Eibarren. Alfontso XIII.aren Plazari izena kendu eta Errepublikaren Plaza jarri zioten.

Eta orduan bai, Telleria sozialistak, alkate izendatuta, bigarren aldiz aldarrikatu zuen Errepublika[5].



Después del último Consejo presidido por el rey

Don Alfonso XIII salió ayer de Madrid a las ocho y media de la noche

La familia real abandona la capital de España esta mañana.-Hoy se hará la transmisión de poderes y se dará á conocer el manifiesto que el rey dirige al país

4 *El Pueblo Vasco*, 1931-04-15, 1.

5 *El Día*, 1931-04-15, 1; *El Pueblo Vasco*, 1931-04-16, 1; *La Voz de Guipúzcoa*, 1931-04-15, 16; *La Voz de Guipúzcoa*, 1931-04-16, 3.

LA FAMILIA REAL


Emocionante despedida en la estación donostiarra

La Reina, entre lágrimas; recibió una ovación de diez minutos.
La despedida en Hendaya.

LA REPUBLICA EN EIBAR



EIBAR. — El propagandista y concejal del Ayuntamiento de Eibar Juan de los Toyos proclamando la República, desde el balcón de la Casa Consistorial, a las seis y media de la mañana de ayer. (Foto Ojanguren.)




Las banderas republicana, socialista y nacionalista ondeando en la fachada de la Casa Consistorial. (Foto Marín.)

El socialista Toribio Echevarría cuenta que fueron los camiones de pescado que viajaban de Donostia hacia Bilbao y Madrid los que trajeron la noticia de que los donostiarras pretendían proclamar la República. Contagiados por el entusiasmo, los eibartarras proclamaron la República, en dos ocasiones. La primera, en la mañana del 14, cuando Tellería arrojó desde el balcón del Ayuntamiento la fotografía de Alfonso XIII y después, cuando supieron que en Barcelona se proclamó la Segunda República.

Lizarrako Estatutua aurkeztu dute

II. Errepublika aldarrikatu zen egunean, Francesc Maciák Bartzelonan Kataluniar Errepublika aldarrikatu zuen Iberiar Federazioaren barruan. Jose Antonio Agirrek, Getxoko alkateak, beste horrenbeste egin zuen[6].



EL REFERENDUM CATALAN

— × —

MADRID 3, (12 noche).

Cataluña sanciona con sus votos el proyecto de Estatuto. — "El resultado de la votación significa el deseo de obtener la libertad plena", dice Maciá. — Franco dice que no se puede negar a Cataluña el derecho de gobernarse así misma. — Marcelino Domingo en Barcelona

Baina katalanek eta euskaldunek jarraitu zuten bidea ezberdina izan zen, erabat. Gobernu (probisional) zentralak hegazkin batean berehala hiru ministro bidali zituen Kataluniara eta azkenean, (behin behineko) Generalitatea osatzea adostu zuten, Estatutua idazteaz arduratu zena: Nuriako Estatutua. Uztailean, Kataluniako udalek proiektua onartu zuten eta erreferendum bidez, Kataluniako herriak abuztuaren 2an bere egin zuen Estatutua[7].

Alcalá Zamora presidenteak Donostian eman zion ofizialtasuna Kataluniako historiako lehendabiziko autonomia Estatutuari, urtebete beranduago eta zenbait aldaketa eginda[8].

---

6 *La Constancia*, 1931-08-04, 1.

7 Abuztuaren hirugarrena astelehena izaki, Donostiako egunkariak ez ziren kalera irten eta hurrengo egunean eman zuten Kataluniako erreferendumaren berri.

8 *La Constancia*, 1932-09-16, 4.




La firma del Estatuto catalán

El presidente de la República firmó ayer, la correspondiente ley

Al acto asistieron los diputados vascos señores Pildain, Aguirre, Leizaola, Horn, Picavea y otros. Incidentes entre republicanos y nacionalistas. A los acordes del Gernikako y el Himno de Riego.

Euskal Estatutuak oztopo gehiago aurkitzeaz gain, adostasun falta handiagoa erakutsi zuen. Eusko Ikaskuntza arduratu zen proiektuaren oinarriak idazteaz. Alde batetik, Espainiako Gobernuak izendatutako diputazioetara (batzorde kudeatzaileetara) sozialista eta errepublikanoak sartu ziren eta proiektuarentzat zenbait aldaketa proposatu zituzten. Beste aldetik, karlistek eta euskal abertzaleek, euren proposamena udalen bitartez aurrera eraman zuten. Bigarren proiektu honek, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroak espainiar Estatuaren barnean autonomia berezia izango zuten egitura politikoa (estatu autonomoa) sortzea proposatu zuen. Euskara ere aipatzen zuen, gaztelaniarekin batera hizkuntza ofiziala izango zelarik. Eskubide historikoei eta foruei ere egin zitzaien erreferentzia, besteak beste.


Proiektuak aurkakotasun handiak ezagutu zituen. Indalecio Prietok adibidez, Estatutuarekin "Gibraltar Vatikanotarra" edo "Jesusen Bihotzaren Errepublika Askea" sortu nahi zutela salatu zuen[9]. Azkenean, 1931ko ekainaren 14an, Euskal Herriko udalerrietako ordezkariek (errepublikanoek eta sozialistek zuzendutakoak ezik) Lizarrako Estatutua onartu zuten[10].



LA DIPUTACION

La reunión del domingo para tratar del Estatuto

El jueves, reunión de Ayuntamientos guipuzcoanos; y el domingo, de los de la región



DECLARACIONES DE INDALECIO PRIETO.

No queda más foco reaccionario que abatir que el del País Vasco.-España no puede consentir que se convierta este territorio en un Gibraltar vaticanista

9 *"Gibraltar Vaticanista", "República libre del Sagrado Corazón".*

10 *El Pueblo Vasco,* 1931-06-16, 1; *La Constancia,* 1931-07-01, 1; *La Voz de Guipúzcoa,* 1931-06-16, 7.



La asamblea de Ayuntamientos en Estella

Se celebró el acto y se aprobó el proyecto de Estatuto con la modificaciones de Azpeitia

La asamblea no tuvo la importancia que quiso darle el Partido Nacionalista


1931ko uztailaren 12an, Estatutuaren aldeko manifestazioa ospatu zen Gernikan[11].



EL DOMINGO EN GUERNICA

Unas 30.000 personas asistieron a los solemnes actos autonomistas


Misa de campaña. Entrega del bastón de mando al alcalde de Guecho. Discursos del alcalde de Azpeitia y de los diputados Oreja, Oriol, Pildain, Arévalo y Aguirre.



El domingo en Guernica

El pueblo vasco tributa a los diputados defensores del Estatuto de Estella una despedida grandiosa

Irailaren 22an, lau probintzietako 420 alkatek Alcalá Zamorari Lizarrako Estatutua aurkeztu zioten[12].



EL ACTO DE AYER

Entrega solemne del Estatuto en la Presidencia

Unas palabras amables del Presidente y una observación oportuna del señor Aguirre. Agasajos y discursos en el Hogar Vasco. Hoy regresan los alcaldes.

Baina Estatutuak izaera katoliko sakonegia zeukan eta errepublikanoen etsai historikoak ziren karlisten babesa erabili zen aurrera ateratzeko, Gobernuak sekula onartu ez zuena. Euskal Estatutuari

11 *El Pueblo Vasco*, 1931-07-14, 6; *El Día*, 1931-07-14, 1.

12 *El Pueblo Vasco*, 1931-09-23, 1.

buruzko eztabaidarik ez zen eman Madrilen. Azkenean, Estatutua defendatzeko hauteskundeetan osatu zen taldeak (guztiak katolikoak), Gorteak utzi zituen, protesta gisa. Urriaren 15ean, Konstituzioa bertikusteko protestak abiarazi zituzten, manifestu baten bidez[13].



EN EL CONGRESO

LA SESION PERMANENTE PARA LA CUESTION RELIGIOSA

Después de un discurso de Azaña, muy elogiado, y frente a la obstrucción de los vasco-navarros, la Cámara se dispone a aprobar un dictamen que de hecho es la expulsión de las Ordenes religiosas, puesto que las contemplativas son incompatibles con la República de trabajadores, se disuelve a las que votan la obediencia al Papa y se prohibe a las demás la Enseñanza.




Los diputados católicos se retiran del Congreso

MADRID 13. (12 noche).
Mientras dure el debate constitucional, dirigirán un manifiesto al país.

Urtea amaitu aurretik, autonomia proiektu berriari ekin zioten ezkerreko mugimenduek PNVren laguntzarekin. Bigarren proiektu hartan, Nafarroa kanpoan geratu zen. Estatutua onartzeko baldintzak hauek ziren: udalen gehiengoaren babesa jaso, erreferendumean hauteskunde erroldaren bi herenak onartzea eta Gorteetan gehiengoa lortzea.

1933ko abuztuan, hiru probintzietako udalek onartu zuten eta azaroaren 5ean erreferendumean baietza atera zen garaile. Erroldaren %90ak parte hartu zuen eta %98ak baietz bozkatu Gipuzkoan eta Bizkaian (Araban ez zuen bi herenaren onarpenik lortu). Manuel Irujok zera adierazi zuen orduan: "Estatutua izatea Euzkadi izatearen parekoa da, (...) Estatutua da gure nortasuna aitortzea Espainiaren eta munduaren aurrean"[14].




El Estatuto superó en el plebiscito el 66 por 100 exigido por la Constitución

DESPUES DEL TRIUNFO
SIGNIFICACION DE LA VICTORIOSA JORNADA

La votación en Guipuzcoa rebasó el 87 por 100 de los electores

La emoción del Censo electoral. El entusiasmo de las mujeres y la decisión de los ancianos. Felicitaciones a la Gestora y parabienes a "Aldeer".



UN ATROPELLO ESCANDALOSO A LA HONRADEZ, SERIEDAD Y DIGNIDAD DE EUSKAL-ERRIA

Con un impudor que tiene todos los caracteres de una burla sangrienta a la opinión del País Vasco se apela a todos los procedimientos para amañar burdamente el plebiscito

De escasas pocheras con millares de votos anglosajones y rondas volantes de bolilleros que votan en todos los Colegios más de 50 y 60 veces. Millares y millares de papeletas introducidas en las urnas por los presidentes de Mesa, a las cuales casi en su totalidad se les había comunicado previamente a cuanto habían de ascender el número de sufragios favorables al Estatuto en su respectivo Sección. Para representar esta comedia se ha subvencionado a casi toda la Prensa del País Vasco, excepto la tradicionalista. Se han pagado trabajos de confeccionistas y publicistas. Se ha inundado todo el País Vasco de hojas, panfletos, carteles y folletos. Todo ello con el dinero del contribuyente del que han dispuesto libremente los Comisiones Gestoras. Y por último, se han alterado, entre bambalinas, oscuros pactos vinculados con el Gobierno.

13 *El Pueblo Vasco*, 1931-10-14, 3; *La Constancia*, 1931-10-16, 2.

14 *El Pueblo Vasco*, 1933-11-07, 1/2; *La Constancia*, 1933-11-07, 1; *El Pueblo Vasco*, 1933-11-07, 1/2.



Doña Micaela de Garín, viuda de Goenaga, anciana de noventa años, que en un colegio electoral de Atocha dió su voto favorable al Estatuto.

Baina azaroan bertan hauteskunde orokorrak ospatu ziren eta zentro eskuineko Gobernu berriak Kataluniako Estatutua indargabetu eta euskal Estatutuaren inguruko edozein mugimendu geldiarazi zuen. Aipagarria agian, Jose Calvo Sotelok 1935ean Donostian mitin batean botatakoa: "*Yo entre dos Españas, roja la una y rota la otra por el separatismo, me quedo con la España roja*"[15].



EL DIA

La aprobación de nuestro Estatuto

El pueblo vasco, superando con exceso el porcentaje plebiscitario, formuló su demanda de autonomía en la forma contundente que revela una votación de aplastante mayoría

En plena victoria
La jornada triunfadora de la personalidad vasca

El referendum popular arroja en Guipúzcoa un porcentaje que rebasa el 90 por 100; en Vizcaya pasa del 88 por 100 y en Alava del 55

El mismo día en que se proclamó la Segunda República, Maciá proclamó además la República Catalana. Jose Antonio Aguirre siguió los pasos de Maciá. Pero el camino andado por unos y otros fue muy diferente. Los catalanes aprobaron el Estatuto de Nuria que Zamora oficializó en Donostia un año más tarde. En el País Vasco, hubo más debate y después de que las Cortes echaran por tierra el proyecto de los católicos, tuvieron que esperar hasta el verano de 1933 para que se aprobara el Estatuto firmado por las izquierdas y el PNV. Pero el cambio de Gobierno de aquel año suspendió el Estatuto catalán y cortó el recorrido al Estatuto vasco.



15 *El Día*, 1933-11-07, 1.

Konstituzio berria adostu da Madrilen

1931ko ekainaren 28an II. Errepublikako Gobernu Konstituziogilea osatzeko hauteskundeak sozialistek eta errepublikanoek irabazi zituzten ia leku gehienetan (Euskal Herrian ez adibidez). Eztabaida luzeak izan ziren konstituzio berriaren inguruan, arazo erlijiosoa edota estatuaren egituraketa tarteko. Azkenean, Estatu integrala onartu zen, egungo egitura autonomikoaren aitzindaria izan zena. 1931ko abenduaren 9an, Espainiak ordura arte izan zuen Konstituziorik aurrerakoiena onartu zuten Gorteek[16].



LA CONSTANCIA

LAS CORTES CONSTITUYENTES

Por 368 votos en favor y ninguno en contra se aprobó definitivamente la Constitución



EN EL CONGRESO

La Constitución fué promulgada ayer solemnemente

Un discurso del Presidente de la Cámara acogido con aclamaciones y aplausos. De 476 diputados que han prometido el cargo votaron la ley fundamental 368. Los restantes no asistieron y no hubo ningún voto en contra. Hoy será elegido el Presidente de la República y mañana a las dos y media se verificará la promesa.



La Voz de Guipúzcoa

Diario Republicano

UNA FECHA HISTORICA PARA ESPAÑA

El día 10 de diciembre de 1931 es elegido presidente de la República Española don Niceto Alcalá Zamora

La elección la realizan las Cortes Constituyentes, por trescientos sesenta y dos votos

En junio de 1931 se celebraron elecciones constitucionales que ganaron los republicanos y los socialistas. El 9 de diciembre se aprobó la Constitución más progresista que había tenido España hasta entonces. La Constitución amparaba un Estado integral, que fue el precursor de la actual estructura autonómica.

16 *La Constancia*, 1931-12-10, 2; *El Pueblo Vasco*, 1931-12-10, 1; *La Voz de Guipúzcoa*, 1931-12-11, 1.

(Real) Sociedad Foot-Ball de San Sebastián

1909an Sociedad de Foot-Ball de San Sebastián sortu zen. 1910eko otsailean Alfontso XIII erregeak, Donostian hainbat uda igaro zituenak, erret titulua eman zion, Real Sociedad bihurtuz.

II. Errepublikan zehar, astelehenetan ez zen egunkaririk kaleratu eta zaleek asteartera arte itxaron behar izaten zuten asteburuko kirol emaitzak ezagutzeko.

Real Sociedad ordea ez zen izenik aproposena Errepublikako futbol ligan parte hartu nahi zuen talde batentzat eta ondorioz, txuri-urdinek izena aldatu zuten: Donostia Football Club. Taldeak armarrian zeraman baloiari ere koroa kendu zioten. Real titulua zuten gainontzeko taldeek berdin egin zuten. Irungo Real Unión esaterako, Unión Club izatera pasa zen.

Larry Lowe entrenatzaile ingelesaren eskutik, Donostia Football Clubak ez zuen Errepublika garaiko liga ezberdinetan emaitza oso onik lortu. 1934-1935 denboraldian, taldea berritu, entrenatzailea aldatu eta jokalari gazteak ekarri ostean, emaitza txarrak eta krisi ekonomikoa tarteko, bigarren mailara jaitsi zen. Hirugarren maila jaistekotan ere egon zen hurrengo urtean, baina Gerra Zibilak eztanda egin zuen eta Liga bertan behera geratu zen. Gipuzkoa frankisten eskuetan geratu ostean, Real Sociedad izena berreskuratu zuen Donostiako taldeak[17].







En el año 1910, el monarca Alfonso XIII concedió el título real a la Sociedad de Foot-ball de San Sebastián. Al proclamarse la Segunda República, el equipo cambió su nombre por el de Donostia Football Club, al igual que hicieron otros equipos reales, como el Real Unión. En la temporada 1934-1935, el Donostia bajo a la segunda división y estuvo a punto de jugar en la tercera división, pero la Guerra Cvil paralizó el campeonato. Después de la guerra, el club retomó el nombre de Real Sociedad.

17 *El Día*, 1931-10-27, 8; *La Voz de Guipúzcoa*, 1931-03-26, 10; *La Constancia*, 1935-04-30, 6.

Nekazal erreforma abian da

II. Errepublika aldarrikatu zenean, Espainiak 24 milioi biztanle inguru zituen eta populazioaren gehiengoak nekazaritzan lan egiten zuen. Soldata baxuak, lur jabe handien boterea, nekazari txikien diru sarrera eskasak, teknologia ez oso aurreratua eta alfabetizazio baxua ziren orduko nekazaritzaren ezaugarri nagusienak. Honek, kontrol politiko eta ekonomikoa ziurtatzen zien jabe handiei. Errepublikako Gobernuak nekazaritza auziari heldu nahi izan zion nekazal eremuak modernizatzeko. Eztabaida askoren ostean, 1932ko irailaren 9an, Gorteetan Ley de Bases de la Reforma Agraria onartu zen, gehiengo osoz. Jabeek zuzenean lantzen ez zituzten edo ongi aprobetxatu gabe zeuden lurrak desjabetu ziren. Noblezia zigortu zuen batik bat, lege hark. Baina nekazariak ez ziren erreformen nondik norakoekin baretu eta finka ugariren okupazioak, huelgak eta protestak ugaritu ziren. Nekazal arazoa ez zen Legearekin konpondu[18].



LA LABOR PARLAMENTARIA

Ayer se aprobaron definitivamente:

Por 318 votos contra 19 la reforma agraria y por 314 contra 24 el Estatuto de Cataluña

El presidente de la Cámara anunció que las sesiones se reanudarán el día primero de octubre.-La votación de las dos leyes suscitó manifestaciones de entusiasmo



LOS CONFLICTOS SOCIALES

La huelga de campesinos continúa en la provincia de Sevilla

En Ecija se anuncia la huelga general para el día 7. La situación en El Ferrol. Ha terminado la huelga de Algeciras. Continúan las detenciones y registros domiciliarios en Barcelona.


Euskal Herrian Nafarroan ezagutu ziren istilu nagusienak, Lizarran, Sartagudan, Mendabian eta Lodosan edota Zarrakaztelun gertatutakoak adibide. Azken honetan, emakumeek manifestaldi bat ospatu zuten lur komunen banaketa eskatuz. Baina lurjabe handien aurkakotasunaren eta Gerra Zibilaren ondorioz, orokorrean emaitza txikiak lortu zituzten nekazariek.

En septiembre de 1932 se aprobó la ley que reformaría el mundo agrario, modernizándolo y liberalizándolo de la presión de los grandes latifundistas. Pero lo cierto es que dicha reforma no satisfizo a nadie. Los sucesos de Estella, Sartaguda, Mendavia, Lodosa o Carcastillo son ejemplos del descontento de los campesinos.

18 *La Voz de Guipúzcoa*, 1932-09-10, 5; *La Constancia*, 1932-06-02, 1.

Sanjurjo Errepublikaren aurka altxatu da

José Sanjurjo Iruñeko familia karlista batean hazi zen. Primo de Riveraren garaian, diktadorearen aldeko jarrera mantendu zuen, baina Alfontso XIII.ak Espainia utziko zuela jakin zuenean, demokrazia babestu zuen lehendabiziko militarra izan zen bera. Handik urte betera Azañak, Guardi Zibilaren zuzendaritzatik kendu zuenean, denboran prestatzen ari ziren estatu kolpera bildu zen. Estatu kolpea 1932ko abuztuaren 10ean, goizaldeko 4ak aldera, eman zuten. Alde batetik, militar talde batek Madril hartu nahi izan zuen, Gobernuko presidentea eta Gerrako Ministroa bahituz. Saiakera gaizki atera zitzaien, kolpearen albistea Madrilen zabaldua zelako: dirudienez, altxamenduan parte hartu zuen kapitainetako baten amante prostitutak, izarapeko sekretuen berri eman zien agintariei. Azaña presidenteak bere bulegotik ikusi zuen Madrilgo kaleetan saiakerak nola egin zuen porrot.
Beste aldetik, Sanjurjok Sevilla hartu zuen abuztuaren 10ean eta Andaluziako kapitain jeneralizendatu zuen bere burua. Baina hilaren 11n, eraso militarra inora ez zihoala ikusirik, Portugalera ihes egiten saiatu zen. Muga zeharkatu aurretik atxilotu zuten. Sanjurjok beranduago esana da, altxamenduak porrot egin zuela, berak gidatu ez zuelako[19].



EL JEFE REBELDE

Sanjurjo, detenido en Huelva, llegó a Madrid

Varias versiones de su detención Con el ánimo decaído, Sanjurjo ha prestado ya declaración, guardándose gran reserva sobre su contenido A Prisiones militares



La Voz de Guipúzcoa

LA REPUBLICA HA VENCIDO EL COMPLOT MONARQUICO

Inutilizados los revoltosos en Madrid, el general Sanjurjo cercado en Sevilla por tropas de tierra y mar, ha desaparecido según noticias de madrugada confirmadas por el ministro de la Gobernación, con rumbo desconocido. Las fuerzas se han entregado a la República

Ha desaparecido el general Sanjurjo y los rebeldes se han entregado

José Sanjurjo fue el primer militar que se posicionó a favor de la República pero cuando Azaña le destituyó de la dirección de la Guardia Civil, se unió al movimiento que preparaba el golpe de estado. El 10 de agosto de 1932, los militares fracasaron en Madrid ya que la amante de uno de ellos desveló el secreto a las autoridades. Un día más tarde, después de haber controlado militarmente Sevilla, Sarjurjo fue detenido antes de cruzar la frontera de Portugal. Según declaró Sanjurjo, el golpe fracasó porque no fue él quien lo dirigió.


19 *El Pueblo Vasco*, 1932-08-12, 1; *La Voz de Guipúzcoa*, 1932-08-11, 1.

¡Viva San Pedro, Orio, San Juan y viva Donostia!

Errepublika garaian Donostiako estropadek ez zuten atsedenik hartu. 1931an, 60.000 pezetatako aurrekontuarekin ospatu ziren eta gipuzkoar ontzi nagusienek eman zuten izena. Ohorezko tanda irailaren 13ko igandetik asteartera atzeratu zen, eguraldi txarrak hala derrigortuta. Lan eguna izanik ere, sindikatu eta gainontzeko elkarteak langileak eguerdirako Kontxan estropada ikusteko aukera izan zezaten ahalegindu ziren. Jendetza ikaragarria bildu zela diote kronikek: *"oceano de gentes"*. Pronostikoak betez, San Pedro atera zen garaile, Orioren aurretik. Bandera Fernando Sasian alkateak eman zien, 18.000 pezetatako ordainsariarekin batera. Honela zoriondu zituen ontziak: *"Viva San Pedro, viva Orio, viva San Juan y viva Donostia. Vivan las libertades vascas y por encima de todo viva la República española"*.

Hurrengo urtean, irailaren 11n, Donostiako estropadek gonbidatu berezia izan zuten: Niceto Alcalá Zamora Errepublikako presidentea. Berriro San Pedrok irabazi zituen baina Sasiainek ezin izan zien banderarik eman, Alcalá Zamora laguntzen ari baitzen, protokoloari jarraituz.


Estropadak 1935era arte jarraitu zuten ospatzen, Oriok bi aldiz eta San Pedrok irabazi zituzten, hurrenez hurren. Gerraren ondorioz, 1940an itzuli ziren estropadak Donostiara[20].


TODOS LOS DEPORTES

LAS GRANDES REGATAS DE TRAINERAS

Por quinta vez consecutiva Pasajes de San Pedro gana la Bandera de Honor

La cuadrilla de Antiguo mostró, una vez más, su clase superior. Orio se portó brevemente, San Juan y Donostia ofrecieron un duro fantástico. Reparto de premios. Otras noticias.


La estancia del presidente de la República en Guipúzcoa

El señor Alcalá Zamora asistió el domingo a las regatas de traineras, corrida de Beneficencia y fiesta náutica

Ayer visitó San Telmo, presenciando la representación del «Saski-Naski», del que hizo grandes elogios

El almuerzo en la Diputación y la fiesta en la Embajada de Estados Unidos. - Se quiere dar gran realce a la firma del Estatuto catalán

La primera tanda de honor celebrada durante el período republicano se celebró un martes, después de que el mal tiempo impidiera que las tripulaciones saltaran a la mar. Los sindicatos se esforzaron para que los trabajadores pudieran terminar sus trabajos y ver las regatas. El ganador fue la tripulación de San Pedro, que recibió la bandera y un premio de 18.000 pesetas. El año siguiente, el presidente de la República presenció las regatas acompañado del alcalde Sasiain. Después de la Guerra Civil, las regatas volvieron a celebrarse en el año 1940.

20 *El Pueblo Vasco*, 1931-09-16, 5; *La Voz de Guipúzcoa*, 1932-09-13, 16.

Azañaren Gobernua erori da

Errepublikako lehendabiziko gobernuak burutu zituen aldaketek ez zuten inor ase. Batzuek, gutxiegi zirela uste zuten. Besteak aldiz, aldaketek iraultza ekarriko zutela beldur ziren. 1933ko urtarrilean adibidez, Cadizeko herri txiki batean, Casas Viejasen, CNTra afiliatutako nekazari talde baten eta Guardia Zibilaren arteko enfrentamenduetan, Guardia Zibilak nekazari baten etxeari su eman zion, barrukoak bertan kiskaliz. Albisteak Errepublika astindu zuen[21].




La Voz de Guipúzcoa

Martes 10 de Enero de 1933 — Diario Republicano — San Sebastián Año XLII - Núm. 16.259

Dos jornadas sangrientas provocadas por los extremistas

En Cataluña y en Valencia estalló el domingo un movimiento revolucionario, dominado rápidamente por el Gobierno, que ha costado numerosas víctimas

En Cádiz, Zaragoza y Madrid también hubo chispazos. - El gobernador de Barcelona declara que el movimiento no es comunista ni de ninguna ideología, sino una aventura turbia de gentes de mal vivir
El Gobierno conocía la preparación del movimiento y la fecha en que estallaría



EN LA PROVINCIA DE CADIZ


Dramáticos episodios en el pueblo de Casas Viejas

Los revoltosos se hicieron fuertes en una casa que hubo que bombardear, pereciendo veinte extremistas y un guardia de asalto Lo que cuenta un guardia que pudo salvarse después de permanecer escondido 14 horas Por la noche, tranquilidad completa en la provincia

